



BARAÑAIN

Udal informazioaren aldizkaria
Boletín informativo municipal
nº92.zk 2019ko urria octubre 2019
DL NA 1782-2012



BARAÑAINEK EZ DU ERASO SEXISTARIK ONARTZEN

BARAÑAIN, CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

AZAROK

Día internacional contra la violencia hacia las mujeres
Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

25
NOVIEMBRE



BARAÑAINEK “EMAKUMEEKIKO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK” KANPAINAREKIN BAT EGIN DU

Beste behin ere, Barañainek emakumeekiko indarkeriaren aurkako borrokari eutsi dio, toki-entitate ugari A25aren karira proposatutako ekimenari atxikimendua agertuta. 2019an, dei berezia egingo zaie gizoni, “Mugi zaitetz!” lelopean.

Emakumeekiko Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, zinez egun berezia Barañaingo Udalarentzat, konprometituta baitago, ezin bestela izan, benetako berdintasuna lortzeko beharrezko ekimen guztiak garatu eta bultzatzeko helburuan.

Hori dela eta, Barañainek berriro egin du bat “Emakumeekiko indarkeriaren aurkako udalak” kanpainarekin. Ondoko entitate hauek atxiki zaizkio: Ablitas, Altsasu, Antsoain, Barañain, Baztan, Berriozar, Burlata, Cintruénigo, Erdialdea Garatzeko Partzuergoa, Lizarra, Uharte, Orkoien, Iruña, Ribaforada, Tafalla, Tuter, Aranguren Ibarra, Eguesibar, Atarrabia, Zizur Nagusia, Noain aldeko, Leitzako, Goizuetako, Aresoko, Aranoko Ultzama aldeko oinarritzko gizarte-zerbitzuak, Izarbeibarko Mankomunitatea eta Sakanako Mankomunitatea. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntzarekin.

Manifestu bateratu edo adierazpen instituzional bat egin da entitate guztien artean, baita kanpaina osoa biltzen duen irudi bat ere. Azaroaren 14an aurkeztu zen, prentsurreko batean. Halaber, udal bakoitzak ekimen-sorta bat prestatu du, eta guztien amaiera azaroaren 25eko manifestazioa izango da, Iruñean, Indarkeria Sexistaren aurkako Emakumeen Nafarroako Plataformak deituta.

Mugi zaitetz!

Horixe da aurtengo kanpainaren leloa, entitate guztien artean adostutako manifestuan bildu dena. Gizoni dei egiten die gehien bat manifestuak oraingo honetan, pribilegiozko egoera utzi eta aurrerapausoa egin dezaten berdintasunerantz. “Hone-laxe adierazten du hori adierazpen instituzionalak: “Horregatik, bada, bereziki gizoni dei egin nahi diegu Azaroaren 25 honetan, mobilizatzen segi dezaten, eta, batez ere, MUGI DAITEZEN. MUGITU eta emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinen konplizeak izateari utz diezaiotela, MUGITU eta aurrera egin dezatela oinordetzan jasotako pribilegioei uko egiteko, MUGITU emakumeen eta gizonen arteko asimetria eta desparekotasuna birsortzen dituzten botereguneeatik, MUGITU benetako berdint-

BARAÑAIN SE SUMA A LA CAMPAÑA “AYUNTAMIENTOS CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”

Un año más, Barañain mantiene su compromiso en su lucha contra la violencia hacia las mujeres adhiriéndose a la iniciativa propuesta por numerosas Entidades Locales con motivo del 25N. En 2019, bajo el lema “¡Muevetel!”, se hace un llamamiento especial a los hombres.

El 25 de noviembre es el Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres, una fecha de especial importancia para el Ayuntamiento de Barañain, comprometido, como no puede ser de otra manera, con el desarrollo e impulso de todas las iniciativas necesarias para alcanzar la igualdad real.

Por este motivo, Barañain se ha sumado de nuevo a la campaña “Ayuntamientos contra la violencia hacia las mujeres”, en la que forman parte las siguientes entidades públicas: Ablitas, Alsasua, Ansoáin, Barañain, Baztan, Berriozar, Burlada, Cintruénigo, Consorcio de Desarrollo de la Zona Media, Estella, Huarte, Orkoien, Pamplona, Ribaforada, Tafalla, Tudela, Valle de Aranguren, Valle de Egiés, Villava, Zizur Mayor, las Mancomunidades de SSB de Zona Noain, de Leitz, Goizueta, Areso, Arano y Zona Ultzama, la Mancomunidad de Valdizarbe y la Mancomunidad de Sakana. Con la colaboración de la Federación Navarra de Municipios y Concejos.

Entre todas las entidades se ha elaborado un manifiesto conjunto o declaración institucional y una imagen que aglutina toda la campaña, que se presentó el 14 de noviembre en rueda de prensa. Asimismo, cada Ayuntamiento ha preparado una serie de iniciativas cuyo colofón es la manifestación del día 25 de noviembre en Pamplona organizada por la Plataforma de Mujeres contra la Violencia Sexista de Navarra.

¡Muevetel!

Este es lema de la campaña de este año recogido en el manifiesto consensuado entre todas las entidades. Un manifiesto que esta vez se dirige especialmente a los hombres para que abandonen su posicionamiento de privilegio y den un paso comprometido hacia la igualdad.

La declaración institucional lo verbaliza de la siguiente manera: “Por ello, este 25 de Noviembre queremos hacer un llamamiento de forma especial a los hombres, no solo a que continúen movilizándose sino, sobre todo, a que se MUEVAN. Que se MUEVAN de las posiciones de complicidad ante diferentes violencias hacia las mujeres, que se MUEVAN y avancen en la renuncia de los privilegios heredados, que se MUEVAN de posiciones de poder que reproducen asimetrías y desigualdades entre mujeres y hombres, que se MUEVAN frente a los cada vez más persistentes ataques a la lucha y trabajo por la igualdad real, que se MUEVAN frente a los cuestionamientos machistas que revictimizan constantemente a las mujeres, que se MUEVAN hacia modelos

tasunaren aldeko borrokari zein jardunari egin zaizkien gero eta eraso gehiagoren aurrean, MUGITU emakumeak etengabe berbiktimizatzen dituzten kuestionamendu matxisten aurrean, MUGITU generoestereotipoak birsortzen ez dituzten maskulinitate-ereduetara, MUGITU izututa dabiltzan emakumeen bidegabekeria-egoera larriaren aurrean. Eta ez daitezela mobilizazioetan bakarrik aritu, ez ditzatela babestu bakarrik indarkeria jasaten duten emakumeak. MUGI DAITEZELA! Azaroaren 25 honetan, gizon guztiei helarazten diegu gonbita, hitzetatik benetako konpromisoetara jauzi egin dezaten, keinuetatik aldaketa-mugimenduetara, batzuen pribilegioetatik denontzako, gizon zein emakume, eskubide osoetara”.



de masculinidades que no reproduzcan los estereotipos de género, que se MUEVAN ante la alarmante situación de injusticia que viven las mujeres que caminan con miedo. Que no solo acompañen en las movilizaciones, que no solo muestren apoyo hacia las mujeres que enfrentan situaciones de violencia. ¡QUE SE MUEVAN! Este 25 de Noviembre invitamos a todos los hombres a pasar de las palabras a los compromisos reales, de los gestos a los movimientos de cambio, de los privilegios para unos a los plenos derechos para todos y todas. No solo en este día sino a partir de hoy, llamamos y esperamos a todos los hombres en la lucha por la identificación y erradicación de todas las violencias hacia las mujeres y al trabajo diario, en el ámbito privado, doméstico, público, laboral, económico, académico y político por la consecución de la igualdad real entre mujeres y hombres”.

Ondoren, emakumeekiko indarkeria-mota oro gaitzetsi eta indarkeria-motaren bat jasan duten edo jasaten ari diren emakumeekiko elkartasuna erakusten du manifestuak. Bukatzeko, berdintasunarekin konprometitzera gonbidatzen ditu herritarrek, baita azaroaren 25aren inguruko jardueretan parte hartzea ere.

El manifiesto prosigue mostrando su repulsa hacia cualquier tipo de violencia hacia las mujeres y mostrando su solidaridad con las que padecen o han padecido algún tipo de violencia. Y finaliza invitando a la ciudadanía a comprometerse con la igualdad y a participar en las actividades en torno al 25 de noviembre.

A25. JARDUERAK BARAÑAINEN

Azaroak 19

- **Dokumentala. “Woman”. Medicus Mundi eta Kanaki Films-ena.**
Zuzendaria: Raúl de la Fuente.
Barañaingo Kultura Etxea.
19:00etan
Sarrera doan, aretoa bete arte.

- **Baragazterekin antolatutako jarduerak. “Berdintasunaren aldeko soinu eta irudiak” proiektua.**

Azaroak 11-16.

Irudi-transferentzia.
Al.-Og.: 16:00-21:00
Or.-Lr.: 17:00-22:00.
Argazkiak urriaren bigarren hamabostaldian zehar egin ziren.

Azaroak 23

Escape Room
Baragazte
10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara:
Izen-emateak azaroaren 20ra arte



25N. ACTIVIDADES EN BARAÑÁIN

19 de noviembre

- **Documental. “Woman”. De Medicus Mundi y Kanaki Films.**
Dirige: Raúl de la Fuente.
Casa de Cultura de Barañáin.
19:00 horas.
Entrada libre hasta completar aforo.

- **Actividades organizadas con el Baragazte. Proyecto “Sonidos e imágenes por la igualdad”.**

11-16 de noviembre

Transferencia de imágenes.
L-J de 16:00 a 21:00
V-S de 17:00 a 22:00
Las fotografías se recogieron durante la segunda quincena de octubre.

23 de noviembre

Escape Room
Baragazte
De 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 21:00
Inscripciones hasta el 20 de noviembre



Azaroak 30

Karaoke bioleta
Baragazte
18:30etik 20:30era
Ez da beharrezkoa izena ematea.

Azaroak 25

Elkarretaratzea emakumeekiko indarkeriaren aurka.
12:00etan
Barañaingo udaletxea
Manifestazioa
20:00etan
Iruñeko Gazteluko plaza

30 de noviembre

Karaoke Violeta
Baragazte
De 18:30 a 20:30 h.
No es necesario inscribirse.

25 de noviembre

Concentración contra la violencia hacia las mujeres.
12:00 horas
Ayuntamiento de Barañáin
Manifestación
20:00 horas
Plaza del Castillo de Pamplona

Emakumeak, protagonista urrian

Emakumeen hilabetea izan da urria M^a Luisa Elío liburutegian eta Kultura Etxean. Izan ere, berdintasunaren aldeko borrokan aitzindari izandako emakume askoren inguruko hainbat ekimen egin dira bietan.

Las mujeres, protagonistas del mes de octubre

Octubre ha sido el mes de las mujeres en la Biblioteca M^a Luisa Elío y en la Casa de Cultura, que han acogido diversas iniciativas en torno a la figura de muchas de ellas que han sido estandarte en su lucha por la igualdad.



Bake eta askatasunaren aldeko emakumeen nazioarteko Elkartearen erakusketa. Exposición de la liga Internacional de Mujeres por la Paz y la Igualdad.

Historia zehar, emakume asko ez dira konformatu gizarteak haiengandik espero zuen rol tradizionalarekin; horrez gain, pertsona askoren ustez emakumeei ez zegozkien eskubide eta askatasunak lortzeko lanari ekin diote bizitzan zehar. Emakume nafarrak eta planetako beste toki batzuetakoak.

Kultura eta Berdintasuna arloek eta M^a Luisa Elío liburutegiek omenaldia egin diete urrian zehar hainbat jardueraren bidez; haien jardueraren bozgorailua izan dira, utzitako ondare garrantzitsua herriarrei ezagutarazi nahian.

Emakume bakezaleei buruzko erakusketa

Urriaren 17tik 25era, Kultura Etxeko erakusketa-aretoak "Bake eta askatasunaren aldeko emakumeen nazioarteko elkartearen, WILPF, 100 urte" erakusketa hartu zuen. Argazkiak eta informazio-erakutsi zituzten han jarritako panelek.

WILPF (Women's International League for Peace and Freedom) oraindik jarduten duten erakunde bakezale antzinakoenetako bat da. Bakea planeta osora eramateko, bereziki gerra- edo gatazka-eremuetara, lan egiten dute kideek, emakumeak gehienak. WILPF-n helburu nagusiak desarme osoa eta unibertsalak, bidezko bake iraunkorra eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea dira. Horregatik, eragin zuzena du erakunde horrek gobernuetan, une zailetan elkarriketa-zubiak eraikitzeko asmoz. **Informazio gehiago:** <https://wilpf.es/>

Salbuespenez, nabarmendu behar da Alaitz institutuko batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleek eta haien historia-irakasleak bisitatu zutela erakusketa. Hartara, zertxobait gehiago ikasi zuten historiako figura garrantzi-garrantzitsu horiei buruz.

Han sido muchas las mujeres que a lo largo de la historia no se han conformado con el tradicional papel que la sociedad esperaba de ellas y que han dedicado su vida a trabajar por conseguir unos derechos y libertades que muchas personas consideraban que no les correspondían. Mujeres navarras y de otros puntos del planeta.

Las áreas de Cultura e Igualdad y la Biblioteca M^a Luisa Elío les han rendido homenaje durante el mes de octubre con diversas actividades, ejerciendo como altavoz de su actividad para dar a conocer a la ciudadanía su importante legado.

Exposición sobre mujeres pacifistas

Entre el 17 y el 25 de octubre, la Sala de Exposiciones de la Casa de Cultura acogió la exposición "100 años de WILPF, liga Internacional de Mujeres por la Paz y la Libertad", que incluía diversos paneles con fotografías y contenidos informativos.

WILPF (Women's International League for Peace and Freedom) es una de las organizaciones pacifistas más antiguas que sigue todavía en activo. Está integrada fundamentalmente por mujeres que trabajan para favorecer que la paz sea posible en todo nuestro planeta, especialmente en zonas de guerra o de conflicto. Los objetivos principales de WILPF son conseguir el desarme total y universal, una paz justa y duradera, y la igualdad entre hombres y mujeres. Por ello, esta organización tiene una incidencia directa sobre los gobiernos con la finalidad de tender puentes de diálogo en momentos difíciles. **Más información:** <https://wilpf.es/>

De forma excepcional, hay que destacar que la exposición fue visitada por escolares de 1º y 2º de Bachiller del Instituto Alaitz y su profesora de Historia, que aprendieron un poco más sobre estas figuras impresionantes de la historia.

Bake eta askatasunaren aldeko emakumeei buruzko liburu-erakustaldia


Erakusketaren ildotik, liburutegiak bake eta askatasunaren aldeko emakumeei buruzko liburu-erakustaldia aurkeztu du, barañaindarrek gehiago sakondu ahal izan dezaten horiei guztiei buruz. Hartara, interesatuek gehiago jakin ahaliko dute hainbat emakume ausarti buruz, hala nola Teresa Kalkutakoa, Rigoberta Menchú, Malala edo Clara Campoamorri buruz. Horrez gain, bidegabeko legeen mende bizi diren edo bizi izan diren emakume askoren errealtateak islatzen ditu erakustaldiak. *Persépolis*, *No sin mi hija*, *La mujer olvidada* edo *Sufragistas* liburuek, besteak beste, errealtate horiek ezagutzen lagunduko dute.

Muestra de libros sobre mujeres por la paz y la libertad

En el marco de la exposición, la biblioteca ha presentado una Muestra de Libros sobre Mujeres por la Paz y la Libertad con el fin de que la ciudadanía de Barañáin pueda profundizar más en la figura de todas ellas. Así, las personas interesadas pueden conocer más acerca de mujeres valientes como la Madre Teresa de Calcuta, Rigoberta Menchú, Malala o Clara Campoamor, entre otras. Además, la muestra incluye títulos que presentan realidades de muchas mujeres que viven o han vivido bajo leyes injustas. Títulos como *Persépolis*, *No sin mi hija*, *La mujer olvidada* o *Sufragistas* ayudan a conocerlas.



Bake eta askatasunaren aldeko emakumeei buruzko liburu-erakustaldia. Muestra de libros sobre mujeres por la paz y la libertad.



Ángel García-Sanzek Matilde Huiciri buruz idatzitako liburua. Libro de Ángel García-Sanz sobre Matilde Huici.



Úriz Pi ahizpei buruzko biografia-liburua. Libro-biografía sobre las hermanas Úriz Pi.

Nafar emakume borrokariak Mujeres navarras luchadoras

Hiru nafar emakume izan dira protagonista Kultura Etxean, Kultura eta Berdintasuna arloek eta M^a Luisa Elio liburutegiak antolatuta, "100 años de Feminismo Pacifista-Bakegintza Feministaren 100 urte" erakusketaren inguruan egindako azken jardueran. Matilde Huici eta Josefa eta Elisa Úriz Pi ahizpak dira, hain zuzen. Haien biografiak bi hitzalditan aurkeztu ziren, eta interes handia piztu zuten biek.

NUPeko Ángel García Sanz idazle eta irakasle erretiratuak "Matilde Huici (1890-1965). Una intelectual moderna socialista" bere liburua aurkeztu zuen, urriaren 22an. PSOEko afiliatua eta II. Errepublikan erantzukizuneko karguak izandako emakume iruindar horren bizi- eta lanbide-ibilbidea aztertzen du liburua. Esate baterako, 1931ko Konstituzioaren aurreproiektuaren aholkularitza-batzorde juridikoaren emakumezko kide bakarra izan zen.

"Pioneras. Historia y compromiso de las hermanas Úriz-Pi" izenburupean, Manuel Martorell kazetari eta historialariak Josefa eta Elisa Úriz Pi ahizpen biografia aurkeztu zuen. Aitzindari izan ziren bi badostaindarrek, XX. mendearen hasieran, iraganean ainguratutako hezkuntza-sistemaren berrikuntza pedagogikoan eta emakumeen eta haurren eskubideen defentsan, konpromiso sozial eta politiko handia erakutsi zutela.

Militante komunistak izan ziren, eta Errepublikako erantzukizuneko kargu handiak izan zituzten gerra zibilean zehar. Frantziara erbesteratu, eta alemanen okupazioaren aurkako Erresistentziaren estreinako taldeak osatu zituzten Parisko eskualdean. Ezin izan zuten inoiz Nafarroara itzuli. Hil zirenean, Berlinen erbesteratuta, aitortu zieten erakutsitako aparteko ausardia.

Tres mujeres navarras han sido las protagonistas de la última actividad, realizada en la Casa de Cultura en el marco de la exposición "100 años de Feminismo Pacifista-Bakegintza Feministaren 100 urte", organizado por las Áreas de Cultura, Igualdad y la Biblioteca M^a Luisa Elio. Se trata de Matilde Huici y las hermanas Josefa y Elisa Úriz Pi, cuyas biografías se presentaron en dos conferencias de gran interés.

El escritor y profesor jubilado de la UPNA Ángel García Sanz presentó el 22 de octubre su libro: "Matilde Huici (1890-1965). Una intelectual moderna socialista", en el que repasa la trayectoria vital y profesional de esta pamploesa afiliada al PSOE que ocupó puestos de responsabilidad durante la II República. A modo de ejemplo, hay que destacar que fue la única mujer que formó parte de la comisión jurídica asesora del anteproyecto de la Constitución de 1931.

Bajo el título "Pioneras. Historia y compromiso de las hermanas Úriz-Pi", el periodista e historiador Manuel Martorell, presentó la biografía de Josefa y Elisa Úriz Pi, dos mujeres nacidas en Badostáin adelantadas a su tiempo, pioneras a comienzos del siglo XX en la renovación pedagógica de un sistema educativo anclado en el pasado, en la defensa de los derechos de la mujer y la infancia, y con un alto grado de compromiso social y político.

Militantes comunistas, asumieron destacados cargos de responsabilidad para la República durante la guerra civil. Exiliadas en Francia, formaron los primeros grupos de la Resistencia contra la ocupación alemana en la región de París. Su extraordinaria valentía fue reconocida cuando murieron en su exilio berlinés, sin que pudieran regresar nunca a su Navarra natal.

Barañaingo bertsio onenaren bila

Barañaindarraren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, Barañaingo Udalaren Hirigintza Arloak jarduketak egin ditu azken hilabeteetan hainbat hezkuntza-zentrotan, parke eta lorategitan, eta bidetan, besteak beste. Munta handiagoko beste batzuk ere egingo ditu laster.

Jarduketa global bat Ezki plazan, Tokiko Inbertsio Planen jarduketan barruan, eta eguneratze txiki batzuk herriko hainbat eremutan dira, zehazki, Hirigintza Arloaren ahalegin eta lan nagusiak une honetan.

Udan zehar, mantentze- eta hobetze-lanak egin ziren hainbat ikastetxetan. Aldi egokia da, zalantzarik gabe, eskolako jardunean eragiten ez delako, ikastetxeak itxita baitaude. Pintura-, iturgintza- eta elektrizitate-lanak egin dira oraingo honetan.

Aurreko legegaldian jarritako banku batzuetan ere esku hartu zen udan, akastunak suertatu baitziren. Izan ere, erretxina zerien, eta kexa batzuk izan ziren horregatik. Espero dugu jendeak orain arazorik gabe erabili ahal izatea.

Ezki plaza

Ezki plazan egin beharreko obra esleitu da jada. Tokiko Inbertsio Planaren jarduketan barruan kokatzen da obra. Iruñeko Mankomunitatearekin batera egiten ari da. Berrurbanizatze-lanak dira, eta azpiegiturako sareak aldatu behar dira.

Udalaren osoko bilkurak, abuztuaren amaieran, 2019ko aurrekontuan inbertsio hori aurrera ateratzeko kontu-sail bat onetsi zuen aho batez. Izan ere, iazko maiatzean onetsi zen inbertsioa, baina ez zen 2019rako aurreikusitako gastuen barruan jaso.



Lakuko kuboa kentzeko lanak. El Cubo del Lago, durante su desmantelamiento.

En la búsqueda de la mejor versión de Barañáin

Para mejorar la calidad de vida de la ciudadanía, en los últimos meses, el área de Urbanismo del Ayuntamiento de Barañáin ha acometido diversas actuaciones en espacios como centros educativos, parques y jardines o diversas vías. Además, próximamente se acometerán acciones de mayor envergadura.



Haur-parke berria. Nuevo parque infantil.

Una actuación global en la plaza de los Tilos, enmarcada dentro de las actuaciones del Plan de Inversiones Locales, junto con una serie de pequeñas actualizaciones en varios puntos de la localidad, centran en estos momentos los esfuerzos y trabajos del área de Urbanismo.

Durante el periodo estival se aprovechó para realizar trabajos de mantenimiento y mejora en diversos colegios. Es sin duda el momento idóneo, ya que los centros se encuentran cerrados y no se interfiere en el periodo lectivo. En esta ocasión se han realizado labores de pintura, fontanería y electricidad.

En verano también se actuó en bancos que se habían colocado en la anterior legislatura y que resultaron defectuosos. Desprendían resina y se habían recibido quejas sobre ellos. Confiamos en que ahora puedan ser utilizados por la ciudadanía con tranquilidad.

Plaza de los Tilos

Ya se ha adjudicado la obra de la plaza de los Tilos, que se enmarca dentro de las actuaciones del Plan de Inversiones Locales. Se realiza conjuntamente con la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona y corresponde a reurbanizaciones con sustitución de redes de infraestructuras.

El pleno del Ayuntamiento aprobó por unanimidad a finales del mes de agosto habilitar una partida en el presupuesto de 2019 para hacer frente a esta inversión aprobada en mayo del año pasado, pero no recogida entre los gastos previstos para 2019.

BESTE JARDUKETA BATZUK

- Merkataritza etorbideko I. fasea amaitu da, argiterian esku hartuta. Xehetasun txiki batzuk egin gabe daude oraindik, hala nola beste bankuren bat eta erdiguneko iturria jartzea. Luze gabe egingo da hori.
- Laster, lorezaintza-lanak egingo dira handiegiak egiten ari diren zuhaitzetan. Izan ere, horietako batzuk gehiegi hurbiltzen ari dira etxebizitzetara.
- Hemendik gutxira, Lakuko haur-parkea estaltzeko obra ere hasiko da. Etxeorratzeko etorbideko lanak egin zituen enpresa berak estaliko du.
- Merkataritza etorbideko II. fasean lan egiten jarraituko da; garajeetako jabeekin batera egingo da lan hori.
- Bukatzeko, Lakuko kuboak kendu da dagoeneko. Aurreikusita dago Hirigintza Batzordeak proposamenak egitea kiosko berri bat jartzeko; herritarrentzako ekitaldiak egin ahalko dira han.

OTRAS ACTUACIONES

- Se ha terminado la Fase I de la avenida Comercial con la actuación sobre el alumbrado. Quedan pendientes algunos detalles que se irán incorporando en breve; como la instalación de algún banco más y la fuente en la zona central.
- Próximamente se van a realizar trabajos de jardinería en árboles que están alcanzando tamaños demasiado grandes. Algunos de ellos se están acercando demasiado a algunas viviendas.
- En breve también se iniciará la obra con la que se cubrirá el parque infantil en el Lago. Realizará este trabajo la misma empresa que se ocupó de las obras de la avenida Rascacielos.
- Se seguirá trabajando en la avenida Comercial fase II, una obra que se desarrollará conjuntamente con los propietarios de los garajes.
- Por último, ya se ha desmantelado el cubo del Lago. Se prevé que desde la comisión de Urbanismo se desarrollen propuestas para la instalación de un nuevo quiosco en el que se puedan desarrollar eventos para la ciudadanía.



Iruñeko etorbideko etxebizitza berrien lanak aurrera doaz.
Prosiguen las obras de las nuevas viviendas en la Avenida Pamplona.

Iruñeko Mankomunitateak jarduketa hauek egingo ditu:

- Iruñeko etorbidearen eta Ezki plazako aparkalekuaren arteko hornidura-kanalizazioa aldatzea.
- Hornidura-hartune berriak egitea.
- Hodiatarako saneamendu-hartune berriak egitea (bai fekalak, bai eurikoak).

Barañaingo Udalak, aldiz, hauek egingo ditu:

- Iruñeko etorbidearen eta Ezki plazako aparkalekuaren arteko tartearen ezkerreko espaloi berria egitea.
- Egun plazako eremuaren zati bat hartzen duten aparkalekuak aldatzea.
- Iruñeko etorbidearen eta plazako aparkalekuaren arteko tartea berriro asfaltatzea.

Aldi berean, hiriko eremu horretatik atera gabe, norabide-aldaketa egin da Rafael Alberti plazaren eta Pedro Bidagor kalearen artean. Bi norabideko da orain, Sahats plazatik ateratzen direnek Ezki plazarantz jaisteko aukera izan dezaten.

La Mancomunidad de la Comarca de Pamplona se hace cargo de las siguientes actuaciones:

- Modificación de la canalización de abastecimiento que discurre desde la avenida Pamplona hasta el aparcamiento de la Plaza de los Tilos.
- Realización de acometidas nuevas de abastecimiento.
- Realización de acometidas nuevas de saneamiento a colectores (tanto fecales como pluviales).

La parte que corresponde al Ayuntamiento consiste en:

- Ejecución de una nueva acera en la parte izquierda del tramo entre la avenida Pamplona y el aparcamiento de la plaza de los Tilos.
- Modificación de los aparcamientos que ocupan ahora mismo parte de la zona de la plaza.
- Reasfaltado del tramo entre la avenida Pamplona y el aparcamiento de la plaza.

Paralelamente y centrado también en esta zona de la localidad, se ha llevado a cabo un cambio de sentido entre la plaza Rafael Alberti y la calle Pedro Bidagor, que pasa a ser una vía de dos sentidos para que los vecinos que salen de la plaza de los Sauces puedan optar a bajar hacia la plaza de los Tilos.

“Gizartearen gehiengoa herri bizi, partizipatibo eta aktibo baten alde dago”

“La mayoría social apuesta por un pueblo vivo, participativo y activo”

EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEA

Maiatzeko udal-hauteskundeetan, 2.462 boto guttira (%22,19) jaso zituen Euskal Herria Bilduk Alkatetza lortu zuen aurreko legealdian, eta, egun, bost zinegotzi ditu: Oihaneder Indakoetxea, Alberto López, Ainhoa Oyaga, Joseba Jiménez eta Ana Leache.

Zer apustu egin nahi ditu EH Bilduk legealdi honetarako?

Barañaingo gizartearen gehiengoa herri bizi, partizipatibo eta aktibo baten alde dago. Gure lehenetsuna da legealdi hau gelditasunak eta atzerakadak eragindako blokeo bat ez izatea.

Oso garrantzitsua da aurreko legealdian herrian hasitako hiri-gintza-berritzearekin jarraitzea. Merkataritza etorbideko bigarren fasearen birmoldaketari ahalik eta lasterrena ekitea, baita lakuko haur-parkea estaltzeari ere. Asfaltatze-lanak, esku-hartzeak hezkuntza-zentroetan eta kirol-instalazioetan, plazetan zoladura jartzea, haur-parkeak konpontzea... eta behin betiko soluzioa bilatzea. Gaztainondo plazaren aferari, interes publikoa lehenetsita betiere.

Etxebizitzari dagokionez, karga handiagoa ezarriko genieke hutsik dauden higieziei. Behin Nasuvinsak Eulza ikastetxearen atzean dagoen udal-partzelan babes ofizialeko 60 etxebizitza eraikitzeko obra lizitatuta, partzelaren bi herenekin zer egin erabaki behar da. Guk adinekoentzako egoitza bat egitea proposatzen dugu.

Funtsezkoa da auditoriorako etorkizuneko eredua erabakitze-ko prozesu bat abiatzea, aholku-

laritza teknikoak jasoko duen prozesu bat. Orain arte egindako kudeaketa ez da bideragarria.

Bukatzeko, udalak politika feminista garatzea, arreta osorik euskaraz bermatzea eta merkataritza txikia sustatzea nahi dugu. Herritarren ekimenen zerbitzura betiere, Barañaingo benetako hauspoa batira. Jai-ekitaldietan animaliarik erabiltzearen eta erakundeek ekitaldi erlijiosoetan parte hartzearen aurka.

Nola doa, zuen ustez, legealdia?

Lau hilabete igarota, antzematen ari gara UPN, Ciudadanos eta PP-ko gobernu-taldeak ez duela gutxiengo-egoeran daudela onartzeko joerarik. Iraganeko tik autoritarioak dira horiek, eta ez dugu onartuko halakorik ezartzea berriro ere udalean.

PSNk erabaki behar du Barañainek ezkerreko politika sozial progresista bat garatzea edo atzeraketan ainguratuta geratzea.

Zer mezu helaraziko zeniekete zuen boto-emalteei?

EH Bilduren bermea frogatuta dago. 500 boto gehiago jaso genituen maiatzeko udal-hauteskundeetan, eta hori gure kudeaketa egokiaren berme da. Ezagunak gara herrian, gizarte-, kirol- eta kultura-gaietan inplikatuak. Dena emango dugu ordezkatzeko ditugun balioek ahalik eta lasterrena kudeatu dezaten udala berriro.



GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU

En las elecciones municipales del mes de mayo Euskal Herria Bildu obtuvo un total de 2.462 votos (22,19%). Después de haber ostentado la alcaldía en la pasada legislatura, actualmente está presente en la corporación municipal con cinco concejales: Oihaneder Indakoetxea, Alberto López, Ainhoa Oyaga, Joseba Jiménez y Ana Leache.

¿Cuáles son las principales apuestas de EH Bildu en esta legislatura?

Existe una mayoría social en Barañaín que apuesta por un pueblo vivo, participativo y activo. Nuestra prioridad es que esta legislatura no sea un bloqueo caracterizado por la inactividad y el retroceso.

Es muy importante continuar con la renovación urbanística del pueblo iniciada la pasada legislatura. Acometer lo antes posible la remodelación de la segunda fase de la avenida Comercial y la cubierta para el parque infantil del lago. Asfaltados, intervenciones en centros educativos e instalaciones deportivas, pavimentación de plazas, arreglo de parques infantiles... y solucionar de manera definitiva la cuestión de la plaza de Los Castaños, primando el interés público.

Respecto a la vivienda, estableceríamos un mayor gravamen a los inmuebles deshabitados. Tras la licitación por Nasuvinsa de la obra para las 60 VPO en la parcela municipal situada en la trasera del Colegio Eulza, queda por definir el destino de los dos tercios de dicha parcela. Planteamos una residencia para personas mayores en este lugar.

Es imprescindible poner en marcha un proceso asesorado técnicamente para decidir el modelo de futuro para el Auditorio. La gestión realizada hasta ahora es inviable.

Por último, queremos un Ayuntamiento que desarrolle política feminista, que garantice la atención plena en euskera y potencie el pequeño comercio. Siempre al servicio de las iniciativas vecinales, auténtico pulmón de Barañaín. Sin uso de animales en actos festivos y sin participación institucional en actos religiosos.

¿Cómo valora el transcurso de la legislatura?

Después de cuatro meses, detectamos por parte del equipo de gobierno de UPN, Ciudadanos y PP una tendencia a no asumir la situación de minoría en la que se encuentran. Tics autoritarios del pasado, que no vamos a permitir que se vuelvan a instalar en el Ayuntamiento.

El PSN deberá decidir si Barañaín desarrolla una política social de izquierdas y progresista o se estanca en un retroceso.

¿Qué mensaje le gustaría trasladar a sus votantes?

La garantía de EHBildu está demostrada. Logramos 500 votos más en las elecciones municipales de mayo que avalan nuestra gestión. Somos personas conocidas en el pueblo e implicadas en temas sociales, deportivos y culturales. Lo vamos a dar todo para que los valores que representan vuelvan a gestionar el Ayuntamiento lo antes posible.